



BERMEOKO UDALA
(BIZKAIA)

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN anderea, Bermeoko Uri Txit Gorenaren Udaleko Behin Behineko Idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2003ko uztailaren 24an izandako Udal honetako **Osoko Bilkurak**, ondorengo erabakia hartu daua:

17.- TOKIKO AGENDA 21 ONARTU ETA MARTXAN JARTZEKO HITZARMENA.

Xedea

Tokiko Agenda 21 onartu eta martxan jartzeko hitzarmena.

Aurrekariak

1992an, Rio de Janeiron egin zan Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian, planetaren degradazioa geldiaraztea lortuko dauan garapen jasangarriaren ereduarentzako lagungarri izango diran ekonomia, gizarte, kultur eta ingurumen politikak garatzeko, Agenda 21a, estrategia orokorraren baliabide gisa onartu zan.

Argudioak

Agenda 21 honen 28. Atalak, udal administrazioen, herritarren, gizarte erakundeen eta enpresen arteko adostasunaren eta euren elkarrizketaren emaitza gisa, Tokiko Agenda 21ak ezartzeko deialdia egiten dau.

Gaur egungo ingurumen arazoak konpontzeko bidea, herri mailan egiten diran jarduerak dira. Horregaitik, Euskal Autonomi Erkidegoko udaletan Agenda 21 onartzea eta martxan jartzea, EAEko ingurumen politikan lehentasuna daukan helburua da.

Hori horrela, IHOBEn, Urdaibai Bioesfera Erreserbaren Patronatuaren, Bermeoaldeko Behargintzaren eta Ajangiz, Bermeo, Busturia, Ea, Gernika, Kortezubi, Mundaka, Muxika, Murueta eta Nabarniz udalen artean, "UDALTALDE 21 URDAIBAI-BUSTURIALDEA" proiektua egiteko eta garatzeko, hitzarmen bat sinatzeko konpromisua hartu da. Guzti hau, goian aipatu bezala, Tokiko Agenda 21 onartu eta martxan jartzeko.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontutan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Udal Osoko Bilkurak:

Tokiko Agenda 21 onartu eta martxan jartzeko, Bermeoko Udalak hitzarmen hau sinatzea.



Eta honela izan daiten, eta ondorio egokiak eragin daizan, Alkate Jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, bere behin-betiko onespeneraren menpean dagoela ohartaraziz, Bermeon, 2004ko urtarrilaren 21ean.

ONETSIA
ALKATEA

